

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Bezeroak gure aplikazioan harpidetu beharko dira, hau da, izen eman beharko dute, beren zenbait datu pertsonalak emanaz. Bezeroekin edukiko dugun harremanaren inguruan, aplikazioa daukaten pertsonekin gertutasun bat erakustea gustatuko litzaiguke, eta horretarako **komunitate** bat sortuko dugu.

Lehenik eta behin, sare sozialeko kontu bat irekiko dugu, bezeroekin guztizko **gertutasun** bat edukitzeko. Honetan, gu agertuko gara enpresa edo app-aren markaren irudi gisa. Modu honetara gu ezagutzeko aukera edukiko dute, eta gurekin identifikatzea lortu nahiko genuke. Sare sozialen bidez (**Instagram eta TikTok**), gure bezeroekin **zuzenean komunikatuko** ginatke eta hauekin batera komunitate bat eratuko genuke. Gure Instagram eta TikTok-eko kontuak [@letmefeel_app](#) dira.



Horrez gain, **gmail** bat (**letmefeel@gmail.com**) ere edukiko dugu, app-ari buruzko zalantzak bertatik galdetu ahal izateko.



Bestalde, bezeroak erakartzeko edota hauen kopurua hazteko, gure sare sozialetako kontua sortzeaz gain, **influencerrei** ere ordainduko genieke gure app-a nolakoa den azaltzeko, eta honen publizitatea egiteko. Hori bai, influencer horiek benetan egin beharko dute bat gure aplikazioaren helburuarekin.

Horrez gain, proiektuak aurrera egin ahala, **musika festibaletarako sarrerek zozketatuko** ditugu, eta festibal horietan gurekin egoteko aukera edukiko dute. Gainera, gure app-arekin zerikusia duten ekimenak egongo dira bertan. Modu honetara, bezeroak gurekin jarrai dezaten lortuko dugu. Honekin bezeroen fidelizazioa lortuko dugu, eta hauek gure aplikazioan jarrai dezaten lortuko dugu.

